

ARIKETAK

A
D
M
I
N
I
S
T
R
A
Z
I
O
I
D
A
Z
K
I
A
K

Azter dezagun ondorengo egoera hau:

Mikel Berriatua Salaberri funtzionarioak borondatezko lan-utzialdia aitortu diezaiotela eskatu dio Funtzio Publikorako zuzendariari. Zuzendariak eskaera ezeztatu eta horren aurka erabakia eman du, Mikel Berriatua ez dituelako hiru urte igaro kidegoan edo eskalan.

Mikelek bestela pentsatzen du. Bera hogeit hamar hilabetetan aritu da lanean bitarteko funtzionario, eta beste hamaseitan karrerako funtzionario; guztira, hiru urte.

Hori guztia kontuan, Funtzio Publikorako sailburuordeari errekurtsio arrunta aurkeztea erabaki du. Horretarako lege-oinarriak honako hauek dira:

- Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 61. atala.
- Herri-administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Ihardunbidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. atala eta hurrengoak.
- Apirilaren 30eko 286/1991 Dekretua (1991ko maiatzaren 7ko EHAA), Lehendakaritza, Lege Araubide eta Autonomi Garapenerako Sailaren egitura arautzen duena.

1 Demagun Mikel Berriatua horrela jasotzen dituela bere datuak errekurtsio arrunta egiterakoan:

Nik, Mikel Berriatua Salaberri, NAN 12345678 zenbakia izan, eta Gasteizko Sancho el Sabio kaleko 35, 8.ean bizi naizen honek, honako hau adierazten dut.

Aldizkari honen seigarren eta zazpigarren orrialdeetan irakurritakoari jarraituz, eman itzazu errekurtsiogilearen datuok banan-banan, eta ez esaldi bakarrean.

A R I K E T A K

A
D
M
I
N
I
S
T
R
A
Z
I
O

I
D
A
Z
K
I
A
K

② Bere datuak jaso ondoren, errekurtsoren berri eman nahi du Mikelek. Zati honetan bi informazio nagusi adierazi behar ditu:

- Zein legetan oinarritzen den errekurtsoa egiteko (kasu honetan, 286/1991 Dekretua eta 30/1992 Legea).
- Zeren aurka aurkezten duen errekurtsoa (kasu honetan, Funtzio Publikorako zuzendariak 1993ko abenduaren 24an hartutako Erabakiaren aurka).

Bi hauek gogoan, saia zaitetz ondorengo hutsuneak betetzen.

Errekurtsoa

Idazki honen bidez,

.....

..... *oinarriturik,*

.....

..... *aurkako errekurtso arrunta aurkezten dut.*

③ Errekurtsoa zeren aurka egiten duen zehaztu, eta arrazoibideak eman behar ditu Mikel Berriatuak. Hona arrazoibideen nondik-norakoak:

- Funtzio Publikorako zuzendariari lan-utzialdia aitortzeko eskatu zion (1993-11-10).
- Zuzendariak, erabaki bidez, ezeztatu egin zuen (1993-12-24), eta hala jakinarazi zioten (1994-01-02).
- Mikelen agirian arabera hiru urte eman ditu lanean.
- 6/1989 Legean lan-utzialdia eskatzeko eskubidea aitortzen da.

Horiek ikusirik, idatzi Mikelen errekurtsoren lau arrazoibideak:

1

2

3

4

GRAMATIKA

④ Gotzon Garateren artikulua irakurri ondoren (16 or.), begiratu segidako testuari. Bertako hitz eta esamolde batzuk letra lodiz idatzita daude. Alda ezazu lodiz idatzitakoa Gotzon Garatek emandako aholkuen arabera.

Amaiak denda batean lan egiten du. Beste egunean lanera iritsi zen eta, hara!, eskutitz bat ikusten du mahai gainean. Dendako zuzendariak bidali dio eskutitza, eta, bertan, Onatiko euskaltegira joateko baimena ematen dio. Izan ere, Amaiaren euskararen ezagutza maila txikia da. Hori dela medio, estuasun ugari pasa izan du bezero euskaldunekin: euskaraz egin nahi eta ezin. Dena den, horrelakoak asko ematen dira Euskadiko dendetan.

Gaur gauean kosta zaio Amaiari lo hartzea, hainbat pentsamendu etorri zaio burura: hain maitea duen Gasteizko hiria utzi beharra, senargaiak zer esango ote dion... Hurrengo egunean Amaia berak kontatu dizkio senargaiari burutazio guztiak. Senargaiak badaki Amaia faltan botako duela eta emaztegairik gabeko egunak ez direla orain artekoak bezala izango, baina irrifartsu agurtzen du aste-burura arte.

Iritsi da eguna; Amaia euskaltegian dago. Hango zuzendariak pertsonalki ongietorria eman eta ikasgelara eraman du. Xabier da bere irakaslea; bere senargaia bezala da: goxoa. Amaiak ez du ariketarako libururik eta Nekaneren mahai berdinean esertzeko esaten dio Xabierrek. Irakasle ona da, oso ondo egon da gauzak azaltzerakoan; Amaiak, ordea, zalantza pare bat du ariketak egiteko orduan eta Nekaneri galdetzen dio.

S O L U Z I O A K

1 Errekurtsogilearen datuak

Izen-abizenak: Mikel Berriatua Salaberri
NAN: 12345678
Helbidea: Sancho el Sabio 35, 8
(Vitoria-Gasteiz)

2 Errekurtsoa

Idazki honen bidez, **apirilaren 30eko 286/1991 Dekretuan eta Herri-administrazioen Araubidearen eta Guztientzako Administrazio Ihardunbidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. atalean eta hurrengoetan oinarriturik, Funtzio Publikorako zuzendariak 1993ko abenduaren 24an hartutako Erabakiaren aurkako errekurtso arrunta aurkezten dut.**

3

1. 1993ko azaroaren 10ean Funtzio Publikorako zuzendariari idatziz eskatu nion borondatezko lan-utzialdia aitortzeko.

2. 1994ko urtarrilaren 2an jakinarazi zidaten Funtzio Publikorako zuzendariak 1993ko abenduaren 24an hartutako erabakia: nire eskaera ezeztatzea, alegia.

3. Honekin batera bidaltzen ditudan agirien arabera, oraingo lanpostuan hogeit hamar hilabetetan aritu naiz bitarteko funtzionario, eta hamaseitan karrerako funtzionario.

4. Horrenbestez, zure erabakia indarrean dauden legeen aurka doa; izan ere, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legearen 61. atalean jasotzen denez, kidegoan edo eskalan hiru urtez ihardun duten funtzionario guztiek borondatezko lan-utzialdia eskatzeko eskubidea dute.

4 Amaiak denda batean lan egiten du. **Lehen**go egunean lanera iritsi zen eta, **hara!**, eskutitz bat **ikusi** zuen mahai gainean. Dendako zuzendariak bidali dio eskutitza, eta, **bertan**, Oñatiko euskaltegia joateko baimena ematen dio. Izan ere, Amaiak **euskaraz gutxi daki**. **Hori dela eta**, estuasun ugari pasa izan du bezero euskaldunekin: euskaraz egin nahi eta ezin. Dena den, horrelakoak **maiz gertatzen dira** Euskadiko dendetan.

Bart kostatzen zaio Amaia **lo hartzea**, hainbat pentsamendu etorri zaio burura: hain maitea duen **Gasteiz hiria** utzi beharra, senargaiak zer esango ote dion... Hurrengo egunean **Amaiak berak** kontatu dizkio senargaiari burutazio guztiak. Senargaiak badaki Amaia **ren falta somatuko duela** eta emaztegaririk gabeko egunak ez direla orain artekoak **bezalakoak** izango, baina irrifartsu agurtzen du asteburura arte.

Iritsi da eguna; Amaia euskaltegian dago. Hango zuzendariak **berak** ongietorria eman eta ikasgelara eraman du. Xabier da bere irakaslea; bere senargaia **bezalakoa** da: goxoa. Amaiak ez du **ariketa libururik** eta Nekanereren mahai **berean** esertzeko esaten dio Xabierrek. Irakasle ona da, oso **ondo azaldu** dizkio gauzak; Amaiak, ordea, **pare bat zalantza** du ariketak egiteko orduan eta Nekaneri galdetzen dio.